

**Ekialdeko Timor** Independentziari buruzko erreferenduma

# Zalantzaz beteriko etorkizuna

*Timortarrek independentzia nahi dutenez, Indonesiak onartuko duenez erabakiko da bihartik landa*

Idurre Eskisabel / Donostia

Ahazu ezinezko eguna izango da 1999ko abuztuaren 30a timortarrentzat. Izan ere, hainbat urtez eskatu dutena bete da: independentziari buruzko erreferenduma egitea. Dena dela, emaitza alde baterakoa zein besterakoa izan, galdera eta zalantza ugari zabalzen dira bihartik aurrera.

EKIALDEKO TIMORKO independentistek itxaropen handiak jarri dituzte biharko bozketan, baina emaitza zein izango den ez dago argi. Timorko azken urteetako bizimodu eta bilakaera eza gututa, independentziaren aldekoek aise irabaziko dutela pentsatzea da errazena, baina Indonesiaren aldekoen «kanpaina gogorraren» ostean, zalantzak pizten dira.

Izan ere, mehatxuak eta indarkeria erabili dituzte paramilitar anexionistek herritarrek «konbentzitzeko». Kasu askotan, gainera, milizietako arduradunak uharterko agintari zibil eta militarrek zirela salatu dute Nazio Batuek eta giza eskubideen aldeko beste zenbait taldek. Kanpaina horren ondorioz, herritar askok beren bizilekuetatik alde egin dute, eta biharko bozetan parte hartuko duten ez dago batere argi.

Halaber, zalantza dago oraindik independentziak irabaziz gero Jakartako Gobernuak emaitza onartuko duen. Behin eta berriz esan du baietz, baina orain arte paramilitarren aferan izan duen jarrera ikusita, independentistak mesfidati daude.

Independentziak irabazi eta Indonesiak onartzuz gero ere, zalantza asko dago argitzeko: oro har, trantsizioa nola egingo den. Bai Xanana Gusmao, bai Jose Ramos Horta buruzagi independentistek behin baino gehiagotan esan dute banaketaren aurretik Indonesiarekin «elkarlan aro bat» behar duela Timorrek, batik batik arlo ekonomikoan, osterrantzean, ez delako bere kabuz bizitzeko gai izango.

Izan ere, orain arte «zigortzaile» izan da Jakartaren politika, eta, ondorioz, Timorrek ez du ia baliabiderik.

## Gatazkako gidariak



### ► Xanana Gusmao

Timorko Erresistentziaren buruzagi espetxeratu

Timorko herritar gehienek «heroi nazionalizat» dute Jose Alexandre 'Xanana' Gusmao. Izan ere, azken 25 urteetan Timorren askatasunaren aldeko borrokan ibili da buru-belarri. Indonesiak Timor inbaditu eta berehala borroka armatuari lotu zitzaion FALINTIL gerrillarekin, eta errebolta buruzagi izana da urte askoan. 1992an atxilotu zuen Indonesiak eta heriotzara zigortu. Gero, 20 urteko espetxera jaitsi zioten zigorra. Azkenean, irailaren 15ean aske utziko dute. Azkenaldion, adiskidetze nazionala aldarrikatu du etengabe. Independentziak irabaziz gero, bera izan liteke Timorko lehendakari.



### ► Jose Ramos Horta

Erresistentziako lehendakariorde, Bakearen Nobela

1974an Portugaldik banatzea lortu ostean, Timorko aurreneko Gobernu independenteko Atzerri ministro izan zen. Indonesiak inbasioa gauzatu baino hiru egun lehenago alde egin zuen bere herritik, eta harrezkero erbestean bizi da, derrigorrez. Urte guztietan, Timorko arazoa nazioartean azaltzea izan da bere zeregina. Bakearen Nobel saria eman zioten 1996an, eta Xanana Gusmaori eskaini zion.



### ► Carlos Ximenes Belo

Diliko gotzaina, Bakearen Nobela

1983an izendatu zuten Diliko administratzaile apostoliko, eta ordudanik, etengabe salatu ditu Indonesiako Armadaren giza eskubideen kontrako ekintzak. Salaketa horien ondorioz, mehatxu ugari jasan izan ditu. Halaber, timortarren babesleku izan da Eliza askotan, eta Indonesiaren erasoan jomuga. Bakearen Nobel saria jaso zuen 1996an Ramos Hortarekin batera. Timorko bertako familia behartsu bateko semea da.



### ► Suharto

Indonesiako lehendakari ohia

Osasunez makal dabil egun, eta azkenaldion gurgildun aulkian ateratzen dizkioten argazkiek zerikusi gutxi dute garai bateko diktadore ahalguztidunaren irudierekin. Hiru hamarkadaz gobernatu zuen Indonesia, bere familian eta lagunetan oinarritutako erregimen autoritario baten bidez. Urte askotako bolada ekonomiko onaren ostean, gainbehera etorri zen 1997ko udan, eta herritarrek kalera ateratzen hasi ziren. Iazko maiatzean egoera eramanezina egin zen herritarren errebolta handiaren ondorioz, eta dimititu egin zuen Suhartok. Timor berak inbaditu zuen, eta oso gogor erreprimitu zuen mugimendu independentista.



### ► Jusuf Habibie

Indonesiako lehendakaria

Suhartok dimititu zuenean trantsizio epe bat zabaldu zen eta Jusuf Habibie bere oinordekoa izendatu zuen lehendakari berri. Hala ere, nahiko urrundu da Suhartoren atzaparretik, eta besteak beste, alderdi ugari demokratizazio jarri du abian —ekainean egin ziren hauteskundeak—. Timorko prozesu berria, erreferendumarekin amaituko baita, bere Gobernuak abiatu du.



### ► Wiranto

Indonesiako Armadaburua

Armadaburu zen Suhartoren erregimenean, eta egun ere armadaburu izaten segitzen du. Zenbait analisten arabera, ez dago oso konforme Timorko aferan Habibiek duen jarrera «irekiarekin». Hala ere, Timorko erresistentziako buruzagi batzuei bostekoa ematen agertu zen argazki batean, «errespetuz jokatzeko» hitzarmen bat sinatu ostean. Dena dela, Armadaren jokaera «eskasa» salatu dute egunotan Nazio Batuek.

## kronologia

## Hiru mendetako menpekotasuna

Menpekotasunaren kronika bat ematen du Timorren azken hiru mendeetako historiak. Honakoak dira data garrantzitsuenak.

**1702** • Portugalek bere menpe hartu zuen Ekialdeko Timor. Indonesia Hollandak kolonizatu zuen garai bertsean.

**1942-44** • Japonia Timorren sartu zen. II. Mundu Gerran Portugal neutrala zen.

**1945-74** • Portugal Timorren jabe egin zen berriz ere.

**1974** • Portugalgo Klabinen Iraultzaren ostean, Timorko deskolonizazioa hasi zuen Lisboak.

**1975** • Indonesia Timor lortzeko propaganda egiten hasi zen.

**1975ko abuztuak 22** • Timorren independentziaren aldeko bi mugimendu elkarren kontra borrokan hasi ziren, UDT eta FRETILIN.

**1975ko azaroak 28** • FRETILINEk independentzia aldarrikatu zuen, baina Portugalek ez zuen onartu.

**1975ko abenduak 7** • Indonesiak Timor inbaditu zuen. Nazio Batuek ez zuten onartu. Hurrengo hilabeteetan 60.000 timortar hil ziren errepresioaren ondorioz.

**1976-79** • FALINTIL zeritzon gerrilla independentistaren —FRETILINen adar armatua— eta Indonesiako Armadaren artean borroka ugari izan zen.

**1979-98** • Indonesiaren Armadak etengabe urratu zituen urte horietan guz-

tietan giza eskubideak, eta nazioarteko gaitzespenak asko izan ziren.

**1991** • Azaroaren 12an 200 bat gazte independentista hil zituzten Indonesiako soldaduek, bezperan hildako beste gazte baten hiletetan zeudela.

**1992** • Xanana Gusmao buruzagi independentista atxilotu zuten eta heriotza zigorra ezarri, «estatuaren aurkako delituak egiteagatik».

**1998** • Indonesiako Suharto diktadoreak dimititu egin zuen maiatzean.

**1999ko urtarrilak 28** • Erreferenduma egiteko prest agertu zen Jakarta.

**1999ko apirila** • Paramilitarrek 50 bat zibil hil zituzten Liquiçako elizan. Handik egun batzuetara beste 30 bat Dilin.